

INTERNET ETA HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN SUSTAPENA

2012ko maiatzaren 17an, osteguna
UPV/EHUko Esperientzia Gelak. Bilbao

Jardunaldiaren txostengileak

Carmen GÓMEZ MONT

Carmen Gómez Mont, doktoreak, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan Mexikoko hizkuntza erkidegoen teknologia eskurazte prozesuen inguruko ekimenak bideratzen ditu, Mexikar gobernuaren zenbait erakunde publikoen baitan. Komunikazio Indigenaren Kongresu Nazionalaren Batzordekide da, eta komunikatzaile indigenek IKTak erabiltzen ikas dezaten lan egiten du. Gai honen inguruan hainbat lan argitaratu du Mexikoko eta nazioarteko aldizkarietan. Egun, *Los usos sociales de las TIC en los pueblos indígenas de México* liburua prestatzen ari da.

Elin Haf Gruffydd JONES

Elin Haf Gruffydd Jones, Aberystwyth (Gales)-eko Unibertsitateko irakasle titularrak bertako Teatro, Zinema, eta Telebista Ikasketa Sailean, eta Komunikabideak eta Industria Sortzaileak gai irakasten du. Bestalde, Mercator Institutoko Kultura eta Komunikabideen zuzendaria da, eta erakunde honen babesean dihardu *Literature Across Frontiers* sarea, EUren, *Wales Literature Exchange*-ren eta Hizkuntza Gutxien komunikabideen ikerketa sarearen dirulaguntzarekin. Hogei urte baino gehiago darama hizkuntzak eta komunikabideen alorrean lanean eta argitarapen ugariengatik, beti ere hizkuntza gutxien ikusmira berezia kontuan hartuz. Bost doktorego tesi zuzentzen ditu, eta horietan testuinguru elebidun eta eleanizetan nazioarteko online komunikazioa, narrazio eta ekoizpen multiplataformak, ekonomia digitala eta komunikabideen identitatea aztertzen du. Europako sei hizkuntza erabiltzeko gai da eta euskara ere ikasten ari da. Hainbat hizkuntzetan *twiteatzen* du @ elinhgj.

Héctor GARCÍA GIL

Héctor García Gil (1974), Hizkuntzalaritza eta Hispaniar Filologian Lizentziaduna da, asturiar filologian aditua, Oviedoko Unibertsitatean. Dialektologia, Hizkuntzaren Historia eta Lexikografia alorretan lan egin duen hizkuntzalaria. Beste gauza askoren artean, Jesús Tusonen *Mal de llingües* itzuli du asturierara (*Mal de llingües*). Hainbat ikertaldetako kide izan da, eta egun Leongo Unibertsitateko irakaslea da. Lión/León-eko *Facendera pola Llingua* elkartearen sortzaileetako bat eta asturiera/leonesa hizkuntzaren biziberritze ekimenen bultzatzaile. Asturieraren Akademiaren lan egiten du teknikari modura.

Juan Pablo MARTÍNEZ CORTÉS

Juan Pablo Martínez Cortés, Telekomunikazio Ingenieria, Zaragozako Unibertsitatean, Zeinu Teorian eta Komunikazioan irakasle titularrak, eta Aragoñeko Ingenieritza Institutoko Komunikaziorako Teknologien Ikerketa taldekide. Bere ikerlan nagusia seinale biomedikoen prozesamendu estatistikoen azterketa da. Bestalde, Nogarà Kultur Elkarteko kide da eta *O Espiello* aldizkariaren argitalpen batzorde kide. Aragoñeko hizkuntzaren zabalkunde eta biziberritze ekimen askotan parte hartu du, bereziki IKT bitartekoak aragoieraren alde erabiliz (itzulpen automatikoa, zuzentzaile ortografikoa, ahotsaren teknologiak, eduki libreen sortze eta zabalpena (wikipedia), software itzulpenak eta aragoieraren urrutiko irakaskuntza).

ANTOLTATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Karaitiana TAIURU

Karaitiana Taiuru, Aotearoa / Zeelanda Berriako web aholkulari maoria da, Tahu Ngai Hegoko irlako, eta Kahungunu Ngati Ipar irlako tribuetako jatorria duen indigena. Hainbat IKT proiektuetan parte hartu du maieraren biziberritze ekimenak indartu eta teknologia hauen bitartez hizkuntza gutxitu honen biziraupena sustatu eta teknologia berriak hizkuntza honekin elkar eramangarriak izan daitezzen.

Lustxo FERNANDEZ

Lustxo Fernandez kazetaria izan zen 1990eko hamarkadan, baina 2000. urtetik aurrera ikintzaile eta enpresaria da Interneteko esparruan. CodeSyntax enpresa sortu zuen zenbait bazkiderekin, eta harrezkero, hazten joan da enpresa hau, software librearekin lan egiten. Bereziki ikertu du eta berezitu izan da L10n eta i18n kontuetan (lokalizazioa eta internazionalizazioa) eta, oro har, Interneteko komunikazio ereduetan. *Sustatu.com* blog kolektiboa editatzen du 2001. Urteaz geroztik, eta euskarazko sareko esparruan erreferentziako bitakora da azken hamarkada honetan. Blog pertsonala ere badu, hiru hizkuntzetan, paraleloan funtzionatzen duena: *Ingelesen Hilerria*. Azken 15 urteotan, hainbat ekimen, proiektu eta bilkuran parte hartu izan du, IKT, Internet eta euskara elkartzen diren gurutze bidean.

Reitze JONKMAN

Reitze Jonkman (1957) doktoreak Ljouwert/Leeuwarden, Herbehereetako Frisia probintziaren hiriburuko egoera eleaniztaren azterketa landu zuen bere doktorego tesian, non frisia, nederlandera eta iriko bertako, nederlanderaren aldakia mintzatzen diren. Tesi-azterketa berezi honetan elkarreagin sozialaren ikerketa soziolinguistiko ezberdinak egin zituen. 1995 urtean, Durk Gorterekin batera, Frisia probintziako elebitasunaren azterketa soziolinguistikoa egin zuen. Geroago, Jonkman diskurtso ez konbergenteetan (NCD) espezializatu da: alegia, bi solaskideren artean, bakoitza bere hizkuntza aldakian diharduen egoera. Bigarren Hezkuntzako irakasle legez, frasieraren urrutiko irakaskuntza landu du, bideokonferentzia bitartez hiru ikastetxeetan aldi berean irakatsiz. Egun, eskolan lortutako friseraren ezagutza lorpenak neurtzeko harriminta baten erakuntzan dihardu, beti ere Hizkuntzen Irakaskuntzarako Europako Erreferentzi Markoaren parametroen arabera.

Informazio gehiago: unesco-hizkuntzak.katedra@ehu.es